

Gipuzkoako txoko batean, 2018ko apirilaren 3an

Kaixo, lagun:

Arraroa izan da gaua, latza berriz goiza.

Gau osoan trumoia, tximista eta haize bortitza elkarri atsedetik eman gabe, eten gabe aritu dira. Zerbait adierazi nahi izango balute bezala, haserre. Ni berriz lo askorik egin gabe jaiki naiz ohetik, leihoko pertsiana igo eta kanpora begiratu dudanean, beste behin ere neguko egun triste horietakoa dela antzeman dut, umela.

Ama jaikia da dagoeneko. Gosaltzera eseri naiz, elkarrekin eseri gara, kontu kontari. Etxeko telefonoak jo duen arte. Biok elkarri begira geratu gara, harrিতuta, arraroa baita goizeko ordu hauetan telefonoak jotzea. Amak telefonoa hartu du eta hizketan hasi da. Ez dirudi albiste ona denik, aurpegia aldatu zaio bat batean. Ekai! Esan du ozen eta isildu egin da (Ekai, bai, zu, nire lagun mina), jarraian telefonoa eskegi eta begietara begiratu dit.

Zer gertatzen da? Galdetu diot urduri, ahots moztuarekin. Ekai! Esanaz malkoa isuri zaio masailean behera, elkarri begira geratu gara, isiltasunean... Hitzik gabe.

Ama lasaitu denean, inoiz entzun nahi ez nuen albiste horietako baten berri izan dut. Negar batean nire gelaraino joan, ohe gainean eseri eta hamasei malko isuri ondoren, burura etorri zaizkit guk biok elkarrekin pasatako denborak. Malko bat momentu bat izango balitz bezala. Idatz mahaian eseri eta gaurko eguna paperean geldituz zedin, gutun hau idazten hasi naiz, niretzat, zuretzat edo irakurri nahi duenarentzat.

Eskuak dardaraz ditut, begiak bustiak, noizean behin malkoren bat ere erori zait orri zuriaren gainera, hauek ere testigu izan nahi dute nonbait. Burua ere urduri, denboran atzeraka, arin, gaueko tximistaren argia baino azkarrago. Bat batean hamasei urte atzera.

Gogoan dut oraindik eskolan ezagutu ginen lehen eguna, zure irribarre zabala, neska mutiko alaiak ginen, zenbat jolas elkarrekin, jolastea beste kezkarik ez, bi hazi txiki. Baina denborarekin bi hazitxo haiek, sustriak bota eta bi lore eder izatera bihurtu ginen, gara. Lorategi handi eta berdinean honetako, bi lore ezberdin. Denak ezberdinak garelako, ezta? Edo ez.

Txikitatik ezagutu gaituzten tokian ondo onartuak izan gara, beti garen bezalakoak ikusi gaituztelako, ulertu dutelako, maitatuak izan gara bai etxean, eskolan, lagun artean. Lagunduak izan gara. Baina kalean, gizartean pixka bat gehiago kosta zaigu, esfortzu eta borroka handiarekin, ez baikaude oraindik prestatuta ezberdinak berdinean ikusteko.

Badakit lagun, hau dena ez dela erreza izan, nekagarria izan dela, zenbat azalpen eta zenbat tramite, ahal dugun bezala eraman dugu, baina azkenaldian zure petaloak apurka-apurka erortzen joan dira, nekatzen, zimeltzen, batere gabe gelditu eta beste lorategi batera joatea pentsatu duzun arte, bertan berriro loratzeko esperantzaz.

Orain, aurrera jarraitu behar dut bakarrik borroka honetan, inoiz baino indar gehiagorekin, gizarteak onartzen ez duen borroka honetan, nire bide lagunik gabe.

Hala ere, badakit, zauden tokian zaudela, borrokan jarraituko duzula, nirekin batera. Eta ez diozula inoiz Ekai izateari utziko.

Lorategi handi hau lore desberdinez beteta ikusi arte.

Ilargi

A handwritten signature in blue ink that reads 'Ilargi' followed by a five-pointed star. The signature is written in a cursive style with a horizontal line crossing through the middle of the word.